



KANALAK

Mugikorreko aplikazio bat denez, gure app-a kontsumitu ahal izateko **mugikor, tablet edota ordenagailu** bat behako dute eta **App store** edo **Google Play**-en eskuragarri eta doan izango dute aplikazioa.



Gure aplikazioa zabaltzeko, **publizitatea** erabiliko dugu, sare sozialen bidez burutuko duguna, alde batetik **gure kontuen bitartez kanal zuzena** izango litzatekeena eta bestetik aurreko puntuan azaldutako **influencerren** Instagram eta TikTok-eko kontuen bitartez, **zeharkako kanala** deritzona.

Pentsatu ditugun influencer batzuk hurrengoak dira: Bea Carpio, Paula Laguno, Aitana Soriano, Alexianaliza eta Cris Blanco. Lehen hirurak lifestyle moduko infuenzerrak dira, baina sarritan egiten dituzte hausnarpenen inguruko bideoak sare sozialetan, horien barruan osasun mentala eta beren arazoengatik ingurukoak. Alexianaliza TikToko psikologo bat da eta gai horren inguruan hitz egiten du; eta azkenak, bikoteekin eta indibidualki izaten diren arazoengatik inguruko hausnarpenak igotzen ditu TikTokerak. Honela egingo litzateke gure aplikazioaren iragarpena edo publikitatea.



Beste **zeharkako kanal** bat gure osasun mentala lantzen duten elkarteek egin ahalko liguketen publikitatea da, elkarte hauek emandako hitzaldietan, adibidez. Agifes, Asafes, Avifes eta Mentaliarekin egingo genuke lan Euskal Herri mailan, eta Grupo Cinco elkartearekin estatu mailan.



Bezeroen iradokizunak jasotzeko aplikazioko sekzio batean kutxatila bat egongo da, iradokizunak eta galderak egiteko, eta bestela sare sozialetatik ere idatzi ahalko digute (TikTok eta Instagram).

